

Baleike udal taldearen proposamenak 2018 ordenantza fiskalerako

Udaleko ordenantza fiskalek, Arrasatearrek ordaintzen dituzten udal zerga eta tasak arautzen dituzte, ondoren aurrekontuetan sarrera bezala finkaturik, udal politikak praktika bilakatuz, herriko zerbitzuak martxan jarritz. Egia da hainbat estatu mailako eta foru arauak mugak ezartzen dituztela, baina borondate politikoa izanaz, posibilitate ugari daude udal esparruan progresibitate fiskalaren bidez aberastasuna modu justu batean banatu eta gizarteko ezberdintasun ekonomikoak ahalik eta hoberen murrizteko.

Zentzu horretan Baleike udal taldetik, justizia soziala sloganean ez gelditzea eta proposamen konkretuen bidez politika fiskal progresiborantz apustua egitea eskatzen dugu, gutxien dutenei lagunduz, berdintasuna bultzatzen duen ereduaren bidean. Bide honetan, udal gobernuak proposatu duen %1'5-eko igoera (%3-a zabor tasan) orokorraren aurka gaude, herritar guztioi presio bera egitean, zailtasun gehien duten familia eta norbanakoak kaltetzen bait dira bereziki, desberdintasunetan sakonduz.

Adibidez Arrasaten, telefono mugikor, energia hornitzaile handiek edo finantza entitate enpresek ez dute lurzoru publikoaren aprobetxamendu pribatuagatik tasa ordaintzen. Hainbat herri eta hirietan ezarri izan zaie tasa, eta orain Arrasaten borondate politiko irmoa behar dugu mozkin itzelak dituzten enpresa hauei ondasun publikoa erabiltzeagatik (etekinak ateraz) kobratzeko. Baleike udal taldearen ustetan, Arrasatearrek ez daukate zertan aprobetxamendu hau doainik egiten jarraitu eta ordua heldu da beste negozio txikiek egiten duten bezala (tabernak, erropa dendak, tokiko merkataritza txikiak...) ondasun publikoaren erabilpenagatik ordaintzeko.

Aberastasuna modu zuzen batean banatzeko, azpikoak ere kontuan izan behar dira, hilabete bukaerara heltzeko zailtasunak dituzten familia eta sektoreak. Soldadak eta nagusien pentsioak izozturik jarraitu edo jeitsi egin dira eta gero eta laguntza behar handiagoak heltzen diardute krisi egoera honetan. Udal gobernuak bi urtetan zehar eraginiko tasen igoera orokorraren aurrean (2 urte jarraian igoko dituzte 2018rako igoera konfirmatzean, %2'6-ko igoera 2015-etik) gutxien dutenak dira beti bezala kaltetuenak. Egoera honen aurrean Baleike udal taldetik tarifa soziala proposatzen dugu bi tasa garrantzitsuenetan, uraren eta hondakinen tasetan. Errenta baxuenak dituzten familiei kargak arintzeko, salbuespen eta hobariak proposatzen ditugu tasa hauetan.

Horrela, etekin handiak dituzten enpresei, beste hainbat tokietan egiten den bezala, tasa kobratuz eta gutxien dituzten arrasatear familiei karga arinduz, bermatu ahal izango dugu fiskalitate justu eta progresibo bat, Arrasateko udal zerbitzuak mantendu eta indartuz, baina ez baliabide urriak dituztenen sorbalden gainean eginez, udal gobernuak proposatzen duen bezala. Gure proposamenak aurrera atera daitezen, prest gaude beste alderdiekin eseri eta gure auzokideei zerga eta tasa justuenak aurrera ateratzeko, ziur bait gaude, borondatearekin, posible izango dela Arrasate hobeago eta justuago bat lortzea.